

ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net

LABURPENEA

Bizikidetasuna Bigarren
Hezkuntzako ikastetxeetan

KASUAK AZTERTZEA




EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERTZETA BALIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: Urtarrila 2006

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatuta eta Ikertzeako Erakundea

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

BIZIKIDETASUNA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN: KASUAK AZTERTZEA

ISEI-IVEI(1)ko Ikerketa honek bizikidetasuna eraikitzeke moduari arreta jarri nahi dio. Halaber, finkatutakoan, egoera desberdinen aurrean nola mantentzen eta nola garatzen den aztertuko da. Bizikidetasun-arloan agertzen diren arazoei aurre egiteko ikastetxeek erabiltzen dituzten estrategiak agerian jarri nahi dira.

Esparru teorikoan bizikidetasun kontzeptura hurbiltzeko asmoz dauden erreferenteak aztertzen dira. Hasiera-hasieratik ikerketa aldendu nahi da konnotazio negatiboak dituzten azterlanetatik, hots, bortxakeria eskoletan, bullying edota eskola-jokabidearen beste agerbide disruptiboak. Estrategia aurre-eraginkor edo aurreratze bezala, ikerketak garrantzi handia ematen dizkio ondoko alderdi positibo hauei ikastetxeen antolakuntza eta jardueretan:

- Ikastetxeak heziketa-prozesuan esku hartzeko unitateak dira eta zuzenean edo zeharka "ikasleen garapen pertsonala eta soziala"ren prozesuan parte hartzen dute. Ondorioz, jokabideak eta ikasleen arteko harremanak finkatzen dituzte, jarrera eta sinesmenetan eragiten dituzte eta jokabideak zuzentzen dituzten baloreak argitzen laguntzen dute. Puig Rovira (1996), Elias, M. J. eta beste batzuek (1997); Munn, P. eta beste batzuek (1992), Ayestarán (1994), Fdez García (2001), Ball (1989), Ortega eta Mora (2000)...
- Ikerketa batzuen ondorioek "eskola eta ikasgeletako giroa"ren garrantzia azpimarratzen dute ikasleen ikasketetan. Giroa erakundearen errealitate berezia da, ez da hala-holakoa. Horregatik, eskola-giroari eragiteko jardueren esparru ezberdinetan parte hartzea beharrezkoa da. Erakundea erakargarria eta bidezkoa izan dadin, garatzen den lanak aipatutakoak izan behar du, ez ausaz edo kasualitatearen ondorioetakoak. Horretarako, eskola-lanak epe ertainera eta luzerako estrategiak ahalbidetu behar ditu. CIDE (1995), Cotton (1995), Muijs eta Reynolds (2001), Muñoz-Repiso eta beste batzuek (2002)...
- Eskola-giroarekin batera "eskola-kultura"ren terminoa agertzen da. Termino hori pertsona erakundeetan kontzeptuarekin erlazionaturik dago eta bai jokabideetan (jendeak esan eta egiten duena), bai harremanetan (lan konpartituaren artikulazioa) eta bai jarrera zein baloreetan (lan prozedurei informalki eragiten duten bereganaketak, sinesmenak eta aurreiritziak) jartzen da agerian. Kulturaren osagaiak aztertzea da eskola-bizikidetasunari buruzko hausnarketarako gako bat. Bolivar82001), Choo (1998), Dixon (2002), Fullan (2002), Hopkins (2003), Prosser (2002)...
- Aurrekoaz gain, eskola-erakundeetan pertsonak harreman formal eta ez formalezko, eskumena eta menpekotasunezko, kolaborazio eta borrokarako sare trinko bat ezartzen dute. Eskumena banatzeko eta erabiltzeko modu ezberdinek baita eskolan parte hartzeko prozedurek ere, eragin handia dute erakundeek dituzten helburuen lorpenetan, gure kasuan demokrazia eta bizikidetasunerako heziketan, hain zuzen ere. Bernstein (1990), Gerwitz eta beste batzuek (1995), San Fabián (1997), Schein (1992)...

Harreman- eta bizikidetasun-giroari buruz dagoen kontzeptuzko garapen-maila kontuan hartuta, ikerketa-taldeak ikerketa deskriptiboak egitea erabaki du. Bere helburu orokorra honakoa da: "Erakundeak eta gertaerak aurkitu, alderatu, egiaztatu, argitu, aztertu eta interpretatzeko, indibiduoari, taldeari, erakundeari, metodoari eta materialei erreparatzea..." (L. Cohen, L. Manion. 1990). Metodologia guztietatik kasuak aztertzea hautatu da.

Ikerketa oinarrian ikuspuntu kualitatibotik planteatu da; hala eta guztiz ere, egiaztatzeke elementu kuantitatiboak ere badaude. Ikerketa-literaturan askotan konbinatzen dira teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak, bai datuak biltzeko prozesuetan, bai horiek aztertzeke orduan (X. Coller, 2000).

Kasuak aztertuta egoera zehatzen argazkia eskuratzen saiatuko da ikerketa. Ildo horri jarraiki, alderdi esangarriak azpimarratuko dira. Adelmanek (1984) adierazten duen bezala, "kasuak aztertzea aterki-terminoa da: errealitate zehatza ikertzeke helburu komuna duten ikerketa-metodokoaren familia biltzen du". Adibide zehatzaren ikerketa sistematiko bezala, kasu espezifikoaren kontakizun xehea eta zehatza egiten saiatzen da. Hala, irakurlea kontakizunean murgildu ahal izango da eta egileen interpretazioak egiaztatu ahal izango ditu kasu eraikitzeke emandako ebidentziaren hautaketa egokiaren bidez.

Esparru teorikoaren bukaeran, ikerketak proposatzen dituen bizikidetasun-giroaren elementuak eta osagaiak azaltzen dira:

Bizikidetasun-giroaren elementuak eta osagaiak				
Ikastetxea	Ikasgela	Ikastetxeak ondokoekin...?	kolaboratzen	du
1.- Jokabideen araubidea		1.- Hezkuntza-sistema		
2.- Pertsona guztien integrazioa eta lan partekatuan irakaskuntzako eragileen inpromisoa		2.- Komunitate hurbila		

- 3.- Harremanak
- 4.- Irakaste-ikaste prozesuetan giroa eraginkortasunerantz orientatzea
- 5.- Ikastetxearen zuzendaritza eta bizikidetasun-proiektuaren lidergoa*
 Esparru bakoitzak baditu bere azpi-esparruak
 * Ez da aztertzen ikasgela-mailan

3.- Lankidetzaz gizarte-sistema zabalagoarekin

Ikerketaren eragileak		
A.- Testuinguru-eragileak	B.- Denbora-eragileak	C.- Emaitzak
1.- Ikastetxearen historia eta ingurunea	1.- Proiektuaren hasieran bizikidetasuna garatzeko ikastetxearen estrategiak	1.- Bizikidetasuna lanaren lorpenak
2.- Bizikidetasun-proiektuaren historia eta ingurunea	2.- Proiektuaren garapenean bizikidetasuna garatzeko ikastetxearen estrategiak	1.- Ebaluazio-sistemak
3.- Ikasgeletan egindako lanaren historia eta ingurunea		1.- Etorbizunerako aukerak

Ikerketaren diseinuak ondoko alderdi nagusienak biltzen ditu:

Bizikidetasunaren arazoei modu sistematikoan erantzuna ematen duten ikastetxeak aukeratu dira. Ikerketaren ikastetxeak baita ikastetxe bakoitzean ikerketan parte hartu duten pertsonak ez dira ausaz hautatu, hau da, laginak aukeratzeko orduan erabili den helburua informazio zabalena lortzea izan da. Ikastetxe horiek Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gai horretan lanean diharduten ikastetxeen adibide txiki, baina esangarria da. Xede horrez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Heziketa Berriztapenerako Zuzendaritzak antolatutako "Bizikidetasunerako heztea" programaren baliabideak eta orientabideak aprobetxatzen ari dira.

Ondorioak oinarritzeko iturriak izan dira berriemaile kualifikatuei egindako elkarrizketak (bizikidetasun-proiektuen koordinatzaileak, zuzendaritza-taldeak, irakasleak, ikasleak eta familiak), galdeketa (guztira 262 ikasle), dokumentu-analisia (Hezkuntza-proiektua, Curriculum-proiektua, Antolaketa eta Funtzionamenduaren Araudia eta Bizikidetasun-proiektua) eta, neurri txikiagoan, ikertzaileen zuzeneko behaketak.

Ikertzaileek garrantzia ematen diote partaide bakoitzak elkarrizketan esandako iritzi eta balioztapenak onartzeari. Horregatik, ikerketaren ondorio eta txostenak ateratzeko, erabili den oinarritzeko materiala ikastetxeetara bidali da, bertako berriemaileek balora dezaten. Behin betirako txostenak ikastetxeekin negoziatuak izan dira.

Aurrekoaz gain, ikerketaren fidagarritasuna eta balioa kontuan izan dira, horiek biak derrigorrezkoak baitira fundamentuzko ondorioak ateratzeko. Fidagarritasuna bermatzeko ikuskapen-aztarnak ezartzea eta ihardespena pausoz pauso erabili dira. Barne-balioa bermatzeko honako hauek erabili dira: triangelaketa, iruzkina ikertzaileen artean, berriemaileekin egiaztatzea eta egiaztatze-materialak biltzea. Azkenik, kanpo-balioa lortu da aipaturiko laginketa nabarmenez gain deskribapenak sakontasunean eta informazioaren bilketa zabalaren bidez.

Bai elkarrizketa, bai analisi dokumentala, bai galdera-sorta eratzeko baliabideak gauzatu dira harreman- eta bizikidetasun-giroari buruzko faktore eta azpi-faktoreen zerrendatik abiatuta. Egile batzuek prozesu horri aldagaiak "operatibizatzea" deritze.

Kasuak deskribatu dira ondoko eskemari jarraituz: ikastetxearen eta bere ingurunearen ezaugarriak, lehenengo urratsak bizikidetasun-proiektuan, bizikidetasun-proiektuaren elementuak, eta azkenik proiektuaren lorpenak, ebaluazioa eta etorkizunerako aukerak.

Ikasleen galdeketaren azterketa egiteko hasieran itemak multzokatu egin dira emaitza-multzoaren ikuspegi orokorra lortzeko. Lagin osoaren eta ikastetxe bakoitzaren analisi estatistikoa egiten da, batezbestekoak eta desbiderapen tipikoak kalkulatu. Gainera, ikastetxeen batezbestekoen arteko diferentzia esanguratsuak -%99 eta %95eko konfiantzaz- atera ondoren analisiak sexuka, mailaka - DBHko 2. eta 3. ikasmilak- eta ezaugarri bereziko ikastaldeka egin dira.

Azterketa amaitzeko, puntuaziorik altuenak lortu dituzten itemak kontuan hartu dira: ikaskideen arteko adiskidetasuna, irakasleen arteko harremana, ikasgelako araudia ezagutzea, ikastetxeak beren ikasleei esleitzen dien tratu berdina eta irakasleek ikasleei eskaintzen dieten laguntza, hain zuzen ere. Aldiz, puntuaziorik baxuenak lortu dituztenak honako hauek izan dira: klaseen erakargarritasuna eta ikastera estimulua, ikastetxearen araudia gauzatzeko orduan partaidetza eta ikasgelako araudia.

EMAITZAK eta ONDORIOAK

Ondorioen izendatzaile komun bezala esan daiteke ikastetxe bakoitzak bere egoeraren diagnostikoan oinarriturik egokituriko neurri-multzo bat aukeratzeko duela. Ikastetxe guztietan ikasleekin, familiekin eta

komunitate hurbilarekin lan egiteko orduan, elementu bateratzaile eta eraikitzaile bezala bizikidetasuna berriz pentsatzera daraman oinarrizko jarrera dago.

Ikastetxeek erabiltzen dituzten estrategien ezagutza ikerketaren oinarrizko ondorioak dira. Ondorioak taldekatu eta sailkatu dira eredu baten arabera. Lehenik eta behin, hiru ikastetxeetan agertzen direnak deskribatu dira, ondoren bi ikastetxeetan edo ikastetxe bakar batean agertzen direnak. Hiru ikastetxeetan agertzen direnak sailkatu dira ondoko irizpideei jarraituz:

- Sinesgarritasun-maila, hau da, erabilitako ebidentzi iturri desberdinen bidez horien ezartze-maila
- Balioztapen-maila, hau da, elkarrizketatuek eta galdetutako ikasleek estrategiari ematen dieten balioen batezbestekoa

Banan-banan aurreko strategiak sakon aztertu dira. Era horretan, osagai orokor bakoitzeko strategiak sailkatzen dira sinesgarritasun- eta balioztapen-maila biak kontuan edukiz, balio handienetik balio txikienera ordenatuz. Honez gain, osagai orokor bakoitzaren kasuan ere sinesgarritasun- eta balioztapen-mailak zehazten dira, lehen mailako eta bigarren mailako estrategia-osagaiak zehazten.

Behin aurreko guztia egina, estrategien interpretazio orokorra egiten da, estrategia batzuek beste estrategia batzuekiko erlazionatzeko eta horiek guztiak ikerketaren testuinguru orokorrean ezartzeko.

Ondorioetan beste bi motatako strategiak aipatzen dira: ikertzaileen ikuspuntutik finkatzea behar duten strategiak eta ikerketaren diseinuan planifikatu diren strategiak, baina ikastetxeek kontuan hartu ez dituztenak. Gainera, Kapituluaren amaieran aipatzen dira eskola-ingurunearen ezaugarriak, alde aurretiko egoeren deskribapena eta bizikidetasun-proiektuaren hasieran erabilitako strategiak.

Ondorio garrantzitsuenen artean estrategien sailkapena dago, ondoko bi mailetan: LEHEN MAILAKOAK -hiru ikastetxeen multzoan, sinesgarritasun- eta balioztapen-mailarik handiena lortzen duten horiek-, eta BIGARREN MAILAKOAK, -bigarren planoan aurkitzen direnak-:

LEHEN MAILAKO ESTRATEGIAK

- Kontuan hartu eta errespetuzko harreman positiboak bultzatzea
- Zuzendaritzaren eta bizikidetasun-proiektuen koordinatzaileen inplikazioa

Hiru ikastetxeen multzoan, estrategiarik baloratuenak planteatzen du pertsonen eta taldeen arteko harremanak positiboak direla eta, normalean, hobetzeko lanean jarduten dela. Hori lortzeko, irakasleen arteko harremanak oso garrantzitsuak direla azpimarratzen da. Horrek guztiak adierazten du hiru ikastetxeen hezkuntza komunitateetan garatu den harremanen garrantzia eta euren garapenaren inguruan akordio zabala lortu dela. Lan hori garatzeko irakasleen lana funtsezkoa dela ohartarazten da.

Atal horretako beste strategiak azpimarratzen du bizikidetasunerako garatzen den lan-mota irakasleek taldean egindako hausnarketan, ekarpenen eta ondorioen emaitza dela. Horretarako, abiapuntua eta lorpenak ebaluatzen dira.

Azkeneko bi estrategiek irakasleek ikasleekin bizikidetasunean egindako lan-motaren berri ematen dute. Lan hori jarrera erreaktiboan aldean, prebentziozko jarreretan oinarritzen da. Halaber, ikasleekin sortzen diren arazoei arreta eskaintzen zaie.

Hiru ikastetxeetan zuzendaritzaren zeregina bizikidetasun proiektuan oso garrantzitsutzat jotzen da. Hala eta guztiz ere, proiektuetako koordinatzaileen ardura da animatzea, aholkuak ematea eta trebatzea. Buruzagitza-mekanismo partekatuak erabiliz, proiektua garatu eta jarraitzearen ardura neurri handi batean bi horien artean banatzen da. Ikertzaile guztiak ados daude honakoa baieztatzeko orduan: hezkuntza-zentroetan berriztapen- eta aldaketa-prozesuak garatzeko oso garrantzitsua da zuzendaritza inplikatzeko eta estimulatzea.

BIGARREN MAILAKO ESTRATEGIAK

- Ordenarako, segurtasunerako eta lan eraginkorrerako giroa ezartzea.
- Pertsonen partaidetza eraginkorra eta inplikazioaren estimulua
- Ikasleekin izandako tutoretzarako jarduerak bereziki planteatzea.

Dirudenez, ikastetxeentzat lehentasuna du arau-esparru argia ezartzea, hau da, baimendutakoari mugak jartzen dizkiona. Halaber, ikasleek araudia ezagutzeko prozedurak abian jartzen dituzte. Pentsa daiteke arau-esparru argiak ondorengoekin zerikusia duela: ikastetxean jarduerak lasaitasunez gertatzen dira eta denborarekin giroak onera egin du. Era berean, irakasleen ekintzek duten koherentziarekin eta trinkotasunarekin zerikusia du. Muga jakin bat gainditutakoan, agintaritza gauzatu behar da eztabaidak eta tentsioak ebazteko eta, ildo horri jarraiki, agintaritzak diziplina-jardunbideak eskaintzen dion ahalmena erabiltzen du

Araudia ez da estatikoa, une jakinean egin eta aldaezin bihurtzen dena, hain zuzen ere. Hiru ikastetxeetako irakasleek aldizka araudi aplikagarria berraztertzen dute eta, agian, arrazoi horregatik ere, ikertutako hiru ikastetxeetako araudiak, bizikidetasunaren ohiko egoera gatazkatsu askotan aplikatu arren, eskola-bizikidetasunaren egoerak ez ditu gaindiz erregulatu nahi.

Alderdi horien arteko oreka lortzea ez da erraza izaten, nahiz eta ikertutako hiru ikastetxeetan araua puntu ertainean kokatzeko lanean aritu, hau da, erregulazioa nahikoa izango da, baina ez beharrezkoa baino gehiago. Beraz, ikasleak aukeratzeko nahikoa askatasuna izango du. Oreka ez dute estatikotzat jotzen; bukagabea da eta etengabe berraztertu behar dute.

Dena delakoa, batzuetan bereizgarria da bizikidetzan hezteko ikastetxearen ahalmena, besteak beste, boterea bidegabek aplikatzen ez dela ikasleek hautemateko estrategiak garatzen datza. Halaber, bizikidetzarako lanean diharduten ikastetxeetan erabilera arautzen duten erregelak bidezkotzat nahiz beharrezkotzat joko dituzte eta zigortzeko baino gehiago prebenitzeko eginak daudela hautemango dute.

Orokorrean, ikastetxeek garrantzi handia ematen diote ohiko jarduerak ezagutzaren, ahalmenaren edo antzeko irizpideen arabera ikasleak bereizi gabe egiteari.

Ikastetxeek balioztapen handiagoa ematen diote eta, gainera, hobe dokumentatzen dute irakasleen inplikazioa eta partaidetza, ikasleen eta familien inplikazio eta partaidetzaren aldean. Hori ez da harrigarria irakasleak eskola-erakundearen motorra direla kontuan hartuta eta, ondorioz, ezinbestekoa da inplikatzeko eta parte hartzea ikastetxeak eta bizikidetasun-proiektuak behar bezala funtzionatzeko. Dirudenez, eremu horretan ikastetxeak lehen mailako lana delakoan daude eta, gainera, beharrezkoa da estrategia-mota horiek familiekin eta ikasleekin garatu ahal izateko. Halaber, uler daiteke irakasleen inplikazioak eta partaidetzak irakasleen barne-koordinazioa eta bizikidetasunean irakasleak gauzatzen duen lan-mota zerikusia duela.

Ikastetxeen gobernu-organoak partaidetza, inplikazioa eta konpromisoa bultzatzeko erabiltzea ikertutako ikastetxeetan bizikidetasuna garatzeko pieza nagusia da, adostasunez erabakiak hartzeak duen garrantziaren batera.

Dena den, hiru ikastetxeen pertzepzioa honakoa da: ikasleen inplikazioa eta partaidetza lortzea zaila da.

Ikastetxean erabilitako estrategiak bizikidetasun-proiektuaren oinarria dira, kolektiboak baitira. Dena delakoa, ez da ahaztu behar oso zaila dela proiektua ulertzea ikasgeletan garatzen den lanik gabe, maila horretan finkatzen baitira irakasleen nahiz ikasleen jarrera, portaera eta jarduteko modu gehienak. Laburbilduz, egunegun bizikidetasun-proiektua probatzen den tokia da.

Deskribatutako zenbait jarduera ikastetxean garatzen dira; beste batzuk, berriz, ikasgelan. Azkenekoen barruan, Tutoretzen lana ezinbestekoa da. Ikastetxe guztiek balioztatzen dute ikasleekin egindako tutoretza-lana modu diferentean eta intentsitate-maila desberdinekin. Gainera, eremu horretan bizikidetasunari buruzko jarduera bereziak gauzatzen dituzte: taldean integratzearekin zerikusia duten gaiak lantzen dira, besteak beste, talde-gelan elkar ezagutzea, gelako ordezkaria hautatzea, eta ezagutzak nahiz trebeziak (adierazpenak eta gizarte-abileziak, gatazken aurrean artekaritza, balore pertsonalak argitzea...) garatzen dituzten prestakuntza-gaiak.

(1) Campo, A., Grisaleña, J., Fernández, A. (2004): "Bizikidetasuna Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan: kasuak aztertzea". ISEI-IVEI.

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/convieus.pdf>